

Esperantza gutxiko denboran, esperantza

ESPERANTZA

Izenburua. *Esperanto. Jatorrizko izenburua. L'Espoir. Egilea. André Malraux. Itzultzailea. Karlos Zabala. Argitaratze urtea. 2008. Argitaletxea. Albenia-Elkar (Literatura Unibertsala bilduma).*

INMA ERREA

L'ESPOIR lehen aldiz argitara eman zutenetik 71 urte beteazear direlarik Karlos Zabala euskarara ekarri digu nobela, *Esperantza* izenburupean.

Nobela argitaratu zenean, 1937. urtearen bukaeran, Espainian abiatua zen Gerra Zibilaren berri ahalik eta gehien ezagutzea nahi zuen André Malrauxek, Europako demokraziek Espainiako Errepu-

blikari laguntza eman ziezaiotenedo. Idazleak ez zuen hori lortu, baina *L'Espoir* nobelak, orduko gertaerei estuki lotuta jaio izanagatik, egundaino gorde du bere gaurkotasuna. Orain argitaratutako *Esperantzak* norabide askotari-ko irarkurketak ahalbidetzen dizkigu, eta horrek are erakargarriago bihurtzen du eleberria.

Nobela hau kontakizun zatikatua da, kronologia hutsaren hari meheaz lotua soilik, eta gerraren beraren haustura dakarkigu gogora: gerra –haustura handia– kontatzeko, eredu *hautsia* –harilkatu gabeko kontakizun solteen saldoa– baliatzen du Malrauxek.

Bestetik, egungo irakurleontzat ariketa interesgarria bezain artegarria izan daiteke alderatzea

nobelari izenburua ematean Malrauxek transmititu nahi izan zuen mezua –hots, gerraren karietara sortuko zen gizakien arteko bizikidetzaren berri baten itxaropena– eta benetan gertatu zena –hau da, gerra hartatik faxismoa, hain zuzen Malrauxek amestutakoaren kontrako joera, garaile irten izana–.

Malrauxek fikzio bihurtuta kontatzen dizkigu gerra hasierako zazpi hilabeteko gertaera batzuk –batez ere, Errepublikaren alde borrokatze aldera idazleak berak pilotu atzerritarrekin antolatutako hegazkin-eskuadrilaren ekin-tzak–. Kontakizunean hainbat gogoeta tartekatzen ditu, dela nobelako pertsonaien arteko elkarriketetan dela pertsonaia horien

beraien baitako haurasketen bidez. Hausnartutako gaiak gerra bera, politika, etika eta ideologia, printzipioen eta eraginkortasunaren arteko talka edota jendearen kezkarik oinarritzkoenak –biziraupena edo heriotza, kasu– izaki, haien inguruko gogoetak iraungi gabe eta indar guztiarekin iritsi dira gureganaino, eta gogoeta horietako askok baliozko segitzen dute izaten, gaur egungo irakurleoi ere zer pentsaturik emateko.

Nobelak irakurleengan zirrara sortzeko ahalmena ere badu batez ere gizon-emakumeen sufrimendua eta heriotza deskribatzen dituenean.

L'Espoir argitaratu zutenean Espainiako Gerra Zibila ebatzi gabe zegoenez, bukaera garbirik

gabeko istorioa da nobela hau, eta narrazioak erreportaje-kutsu nabarmena du. Eleberrian kontatutako gertaeren eta benetan jazotzen ari zirenen arteko distantzia kronologikoaren laburrak egunkariko kronika-sorta bat leitzen ari garen irudipena sorrarazten du irakurleengan, eta Malrauxek nobelan erabilitako estiloak (apaindura gutxiko idazkera eta eszenen arteko trantsiziorik eza) irudipen hori indartzen du.

Azkenik, André Malrauxen nortasun konplexuaren oihartzunak eta idazlearen jokamolde maiz kontrajarriek nobela goitik behe-ra zeharkatzen dute. Idazlearen abentura-zaletasuna ere islatua da bertan, batez ere pilotuen arteko giroaren deskribapenetan.